2021eko irailean erregistratutako langabezia

2021ko irailean zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,26 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 119.492 da, aurreko hilean baino 2.768 gutxiago. Azken 15 urtetan erregistratutako daturik hoberena da hilabete honetakoa.



	ira. 07	ira. 08	ira. 09	ira. 10	ira. 11	ira. 12	ira. 13	ira. 14	ira. 15	ira. 16	ira. 17	ira. 18	ira. 19	ira. 20	ira. 21
Saldoa	-2,066	1,087	3,076	1,256	1,177	4,014	3,379	349	-347	1,002	-1,164	-569	-2,444	-1,692	-2768

Aurreko urteko irailarekin alderatuz, 25.266 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 2.253 langabe gehiago zenbatu dira.

- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean gutxiago murriztu da langabezia (-1.198) emakumezkoen artean baino (-1.570). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-13.995) emakumezkoen arten baino (-11.271). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate; 2020 otsailarekin alderatuz, 619 gizonezko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 1.636 gehiago. Gaur egun langabeen % 56,7 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsierak adinarekin proportzioan joan dira, 25 urte azpikoak alde batera utziz (+% 5,03); 35-44 urte tartean % 4,68 murriztu da langabezia eta 54 urte gorakoen artean % 0,52 soilik. Urte arteko bilakaeran, aldiz, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 24 urte baino gutxiago dituztenen artean (% -32,98) eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean (% -27,67).

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Irailean langabeziak behera egin du sektore guztietan, lehenengo sektorean (% -7,11) eta eraikuntzan (% -4,21) izandako beherakadak nabarmentzen direlarik. Oraindik lehen lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 2,94 hazi da. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (% -20,60) eta Zerbitzuetan (% -16,79) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 19,02 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 87 Egoitzetako laguntza..... +214
- 38 Hondakinen kudeaketa..... +59
- 86 Osasun jarduerak..... +42
- 81 Higiezinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak..... +38
- 97 Etxebizitzak langile enplegatzaile gisa..... +30

Aitzitik, irailean erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 85 Hezkuntza..... -1.043
- 56 Janari eta edarien zerbitzuak..... -373
- 78 Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak..... -275
- 01 Nekazaritza, abeltzantza ..... -185
- 80 Produktu metalikoen fabrikazioa..... -178

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.134 pertsonatan murriztu da (-% 1,80) eta epe laburrekoa 1.634 pertsonatan (-% 2,76). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa eman da (-% 20,33) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 14,59 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 61.978 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 51,9a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Abuztuko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 2,74 murriztu da, abuztuan baino 567 langabe gutxiago, 20.135 langabe guztira; 2021eko irailean bilakaera onena izan duen lurraldea da. Gipuzkoan % 1,88 murriztu da, 603 pertsona gutxiago daude langabezian abuztuarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 31.427koa da). Azkenik, Bizkaian, abuztuan baino 1.598 langabe gutxiago daude (% 2,30eko murrizketa), langabetu kopurua 67.930koa da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 19,99ko murrizketarekin; Arabak jarraitzen dio % 19,78eko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 15,49 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 611 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 2,57), Gasteizen 380 pertsonatan murriztu da (-% 2,36) eta Donostian 132 pertsonatan murriztu da (-

% 1,69). Hazkunde nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (-447), Gobela (-171) eta Txorierri (-133) izan dira. Bestalde, Durangaldean (+30) soilik hazi da langabezia.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 17,95), Sestao (% 17,79), Alonsotegi (% 16,51), Balmaseda (% 16,23) eta Elantxobe (% 15,38%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko irailean 39.684 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 2.138 langabe gehiagok. Langabeen % 33,2k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.592 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,1 dira horiek. 18.092 langabek (% 15,1), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,2), Araban % 32,5ekoa da eta Bizkaian % 32,5ekoa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa puntu bat murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 2,97 hazi da.

Irailean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,4 (18.371 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 0,86 murriztu da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 2,52. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 22,93 murriztu da, eta bertakoen artean % 16,37.

Langabe atzerritarren % 35,0 Afrika iparraldekoak dira, % 23,0 Latinoamerikatik datoz, % 19,1 Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,8 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Irailean Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-161); Latinoamerikatik etorritakoen artean, aldiz, hazi egin da (+54).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,5k (71.074 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 838 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan, % 1,17 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 17,50 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 1,31 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 20,81 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 22.193 dira, hau da, langabeen % 18,6. Talde hau irailean zehar % 2,71 murriztu da, eta azken urtean % 14,42 murriztu.

Azkenik, langabeen % 12,9k (15.472 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 7,02 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 13,74 murriztu azken urtean.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 76.113 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 2,28ko murrizketa). Guztira 3.257.802 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,26 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 4,01 murriztu da, Errioxan % 8,78 murriztu, Kantabrian % 2,26 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 6,90 muurriztu. Katalunian % 3,24 murriztu da eta Madrilen % 1,79 murriztu.

2021eko irailean erregistratutako langabezia

Langabeziaren beherakada azken urtean nabarmenagoa da EAEn Espainiar Estatuan baino.

Lan-eskatzaile langabeak 2021eko irailean

	Ira-2021	Abu-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	51.736	52.934	-1.198	-2,26
EMAKUMEZKOAK	67.756	69.326	-1.570	-2,26
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	9.813	9.343	470	5,03
GIZONEZKOAK	4.968	4.711	257	5,46
EMAKUMEZKOAK	4.845	4.632	12	4,60
25-44 URTE:				
GUZTIRA	47.548	49.471	-1.923	-3,89
GIZONEZKOAK	19.428	20.209	-781	-3,86
EMAKUMEZKOAK	28.120	29.262	-1.142	-3,90
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	62.131	63.446	-1.315	-2,07
GIZONEZKOAK	27.340	28.014	-674	-2,41
EMAKUMEZKOAK	34.791	35.432	-641	-1,81
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	2.311	2.488	-177	-7,11
ERAIKUNTZA	13.652	13.964	-312	-2,23
ZERBITZUAK	7.863	8.209	-346	-4,21
AURREKO ENPLEGURIK GABE	80.487	82.854	-2.367	-2,86
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	20.135	20.702	-567	-2,74
BIZKAIA	67.930	69.528	-1.598	-2,30
GIPUZKOA	31.427	32.030	-603	-1,88
EAE	119.492	122.260	-2.768	-2,26

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.039	10,9%	-27	-0,66	-1.010	-20,00
Oarsoaldea	3.725	10,3%	-37	-0,98	-719	-16,18
Donostia-S.Seb.	7.687	8,7%	-132	-1,69	-1.839	-19,31
Donost.Mendebaldea	3.166	8,6%	-78	-2,40	-545	-14,69
Tolosaldea	1.981	8,4%	-90	-4,35	-724	-26,77
Urola Erdia	1.188	7,7%	-67	-5,34	-379	-24,19
Goiherri	1.632	7,6%	-35	-2,10	-487	-22,98
Deba Garaia	2.495	8,3%	-23	-0,91	-768	-23,54
Deba Behera	2.792	10,5%	-58	-2,04	-598	-17,64
Urola Garaia	1.102	9,1%	-42	-3,67	-332	-23,15
Urola Kosta	1.620	7,2%	-14	-0,86	-449	-21,70
GIPUZKOA	31.427	9,0%	-603	-1,88	-7.850	-19,99
Vitoria-Gasteiz	15.746	12,3%	-380	-2,36	-2.714	-14,70
Aialako Ibarra	2.312	12,2%	-63	-2,65	-402	-14,81
Arabar Errioxa	588	10,7%	-92	-13,53	-31	-5,01
Arabako lautada	717	9,5%	-7	-0,97	-313	-30,39
Gorbeia inguruak	315	6,7%	-13	-3,96	-42	-11,76
Arabako Ibarrak	421	8,2%	-10	-2,32	-70	-14,26
Arabako Mendialdea	108	6,9%	-4	-3,57	-27	-20,00
ARABA	20.135	11,9%	-567	-2,74	-4.965	-19,78
Gobela	4.852	9,5%	-171	-3,40	-1.069	-18,05
Txorierri	2.252	9,9%	-133	-5,58	-488	-17,81
Uribealdea	3.160	9,6%	-47	-1,47	-561	-15,08
Durangaldea	3.612	9,7%	30	0,84	-807	-18,26
Busturialdea	2.216	10,3%	-6	-0,27	-466	-17,38
Lea-Artibai	996	8,3%	19	1,94	-276	-21,70
Enkarterriak	2.109	13,7%	-25	-1,17	-315	-13,00
Arratia-Zornotza	1.537	8,8%	-94	-5,76	-383	-19,95
Arratia-Nerbioi	1.356	10,4%	-30	-2,16	-266	-16,40
Bilbo	23.169	13,9%	-611	-2,57	-4.279	-15,59
Ezkerraldea	17.756	14,3%	-447	-2,46	-2.752	-13,42
Ibaizabal	4.825	12,0%	-83	-1,69	-754	-13,51
BIZKAIA	67.930	12,2%	-1.598	-2,30	-12.451	-15,49
EAE	119.492	11,1%	-2.768	-2,26	-25.266	-17,45

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.